

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

[www.ehu.es/
azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)



EHUREKA AHOLKUAK

19

ESTILOA (II)







ESTILO ARAZOAK

EZ PUZTU ALFERRIK TESTUAK

Askotan, testua dotore jantzi nahirik, esaldiak puztu, luzatu eta trinkotzeko ohitura izan ohi dugu. Apaingarriz jantziko dugu esaldia; baina, apaingarri horiekin irakurlea erakarri beharrean litekeena da kontrakoa gertatzea, uxatzea, alegia. Beraz, ez dezagun ahanztz gure testuen helburu nagusia: IDEIAK ARGI ETA LABUR AZALTZEA.

Adibidez



Azken bolada honetan, edozein egunetan, mota guztietako komunikabideetan gure herriarentzat zama larria den langabeziari buruzko hainbat aburu eta iritzi agertu direla ikusirik -eta guzti-guztiak begirunez entzutea merezi dutelarik-, langabeziari aurre egiteko neurriak ahaztu gabe, gure sailaren hausnarketak eta gogoetak agertzea ere komenigarria ez ezik, beharrezkoa, areago, ezinbestekoa ere delakoan, egunkari honetan argitaratzen diren artikuluetako baten bidez gure gai lazgarri honetarako jarrera eta jitea helarazi nahi dut zuregana.

Azkenaldi honetan, langabeziari buruzko iritziak sarri agertu dira komunikabideetan. Ezin ukatu iritzi guztiak entzutea merezi duela; ezinbestekoa da, arazo larria baita gure herrian. Horregatik, gure sailaren hausnarketak ere ekarri nahi ditugu orrialde hauetara, gure sailaren jarrera agertzeko, baita langabeziari aurre egiteko zein neurri hartu edo proposatu ditugun.






ESTILO ARAZOAK


EZ ESAN HITZ BITAN BATEAN ESATEKOA

Askotan adierazpen labur eta lauago baten orde ezamolde luzeagoa erabiltzen dugu. Perifrasia ez da berez txarra; batzuetan baliagarria izan daiteke, larregi errepikatzen diren hitzak saihesteko. Baina tamaina hartu beharra dago.

Adibidez



Helburua lortu ahal izateko aukera izan dezagun beharrezkoak diren baldintzak aztertu beharko ditugu



Helburua lortzeko behar diren baldintzak aztertu beharko ditugu






ESTILO ARAZOAK


ADITZA EZ ERABILI NOMINALIZATUTA

Batzuetan, aditza erabili beharrean izena erabiltzen dugu eta horrela beste aditz bat behar izaten dugu esaldia osatzeko; gainera, esaldia luzatu egiten da eta kontzeptuak modu abstraktuagoan ematen ditugu. Ez diogu zeharo baztergarria denik; aitzitik, batzuetan baliagarria da testuari objektibitatea, inbertsonaltasuna eta halako maila jaso edo eman nahi badiogu. Baina tamainan...

Adibidez



Ikasleak irakasgaien aukeraketa egingo du



Ikasleak irakasgaiak aukeratuko ditu






ESTILO ARAZOAK


FORMA PASIBO ETA INPERTSONALAK GUTXI ERABILI

Esaldi pasiboek informazio gutxiago ematen dute, egileak eta hartzaileak ezkututzen dituztelako; horrez gain, esaldiak luzeagoak izaten dira eta erritmoa moteldu egiten dute. Hori dela eta, esaldi aktiboak erabiltzea hobesten da, argiago uzten baitute subjektua eta objektuaren arteko erlazioa.

Adibidez



Klaustroaren bileran hainbat puntu onartuak izan ziren atzo



Atzoko bileran hainbat puntu onartu zituen klaustroak






ESTILO ARAZOAK


EZEZKO ESALDIA, BAIEZKOA BAINO ILUNAGOA

Komeni da esaldiak baiezkoan jartzea. Izan ere, errazago ulertzen dira, informazio gehiago ematen dute eta; aldi berean, alde positiboa eta egin daitekeena azpimarratzen dute

Adibidez



Ez dugu uste lanpostuan 4.HE ez dutenak ezin direnik azterketara aurkeztu



Uste dugu 4.HE ez dutenak ere azterketara aurkez daitezkeela

